



ERANSKINA

**GARDENTASUNARI ETA INFORMAZIO
PUBLIKOA ESKURATZEARI BURUZKO
URTEKO TXOSTENA
2025**

Egiaztaizteko helbidea Dirección de comprobación
<https://e-s.araba.eus/wps/portal/ConsultaCove>

Egiaztapen kodea Código de verificación
MEHy-9cvm-jj6L-R17V



Euskararen eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritza
2026ko martxoa



Aurkibidea

- 1. Zergatik egin dugu txosten hau?**
- 2. Zer egin dugu 2025ean?**
- 3. Zer egin nahi dugu 2026an?**
- 4. Publikotasun aktiboaren betebeharrak betetzen diren ebaluatzea**
 - 4.1. Nola baloratzen da Araba Irekiaren publikotasun aktiboa?**
 - 4.2. Publikotasun aktiboaren araudia**
 - 4.3. Arabako Foru Aldundiaren publikotasun aktiboaren ebaluazioaren emaitzak**
 - 4.4. Foru sektore publikoko erakundeen publikotasun aktiboaren ebaluazioaren emaitzak**
- 5. Araba Irekian jasotako bisitak**
- 6. Informazio publikoaren eskaeren izapidetzea ebaluatzea**
 - 6.1. Zer informazio mota eskatzen dute herritarrek?**
 - 6.2. Jasotako eskaerak**
 - 6.3. Eskaerei erantzutea**
 - 6.4. Zenbat denbora behar izaten du Foru Aldundiak eskaerei erantzuteko?**
 - 6.4.1. Ebazteko epea, sailka**
 - 6.4.2. Ebazteko batez besteko epea**
 - 6.5. Adierazle orokorrak**
 - 6.5.1. Eskaeretan erabilitako hizkuntza**
 - 6.5.2. Eskatzaileen sexua**
 - 6.5.3. Eskaerak egiteko bideak**
 - 6.5.4. Erabilitako izapide elektroniko mota**
 - 6.5.5. Eskaerak bideratzea**
- 7. Gardentasunaren Foru Kontseiluari egindako erreklamazioak**
- 8. Open Data**



1. Zergatik egin dugu txosten hau?

Gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeari buruzko urteko txostenak Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoaren jardueraren kontuak ematen ditu. Dokumentu honek 2025ean publikotasun aktiboaren betebeharrak eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea betetzen diren ebaluatzen du. Txostena oinarritzen da Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunari, herritarren parte hartzeari eta gobernu onari buruzko [1/2017 Foru Arauaren 28. artikuluan](#) (1/2017 Foru Araua).

Aurrera jarraitu baino lehen, sail eta foru erakunde bakoitzean gardentasuna kudeatzeko izendatuta dauden pertsonen inplikazioa eskertu nahi dugu. Haien lankidetzaz ezinbestekoa da Gobernu Irekiaren zeharkako antolaketa egitura indartzeko eta, horrela, modu lerrokatu eta iraunkorrean aurrera egin ahal izateko.

2. Zer egin dugu 2025ean?

2025ean hainbat hobekuntza ekintza egin dira. Honako hauek nabarmenduko ditugu:

- Emandako dirulaguntzen publikotasun aktiboa hobetu da, informazioa sei hilean behin argitaratuta.
- Araba Irekian (gardentasun atarian) argitaratutako informazio publikoaren ebazpenen URL guztiak hobetu eta estandarizatu dira.
- Funtzionarioen, behin-behineko langileen eta kargu publikoen informazioari buruzko eduki berria jarri da Araba Irekian.
- Araba Irekian argitaratutako informazioaren antolaketa eta arkitektura berrikusi da, aurki webgunea eguneratuko baita. Eguneratze horrek, foru webguneen erabilerraztasun planarekin batera, Araba Irekiaren informazioaren diseinua eta egitura hobetu nahi ditu.
- Geoaraba (Arabako Datu Espazialen azpiegitura formatu irekian) atariari buruzko prestakuntza.
- Hizkuntza argia: argitaratzen den informazioa pertsona guztiek uler dezaten, publikotasun aktiboaren edukiak eta aurkezteko modua hobetzen jarraitzen dugu.

Gobernu Irekiaren inguruko sentsibilitatea eta ezagutza sustatzeko, ikastaro hauek egin dira 2025ean:

Ikastaroak	Parte Hartzaileak	Emakumeak	Gizonak
Oinarrizko soziolinguistika	9	7	2
La protección de datos de carácter personal desde la transparencia	12	11	1
Taller habilidades de trato y relación	15	10	5
Hacia un uso igualitario del lenguaje y la comunicación en la administración	8	8	0



Herramientas útiles para la consecución de la igualdad en la atención a la ciudadanía	2	2	0
Herritarrei arreta emateko tresna baliagarriak berdintasuna lortzeko bidean	2	2	0
Hombres, masculinidades e igualdad: mirando al futuro, construyendo políticas públicas para la igualdad	2	1	1
Testu argiak euskaraz: hitz-ordena eta puntuazioa	3	2	1

1. taula. Gobernu Irekiarekin lotutako ikastaroetan parte hartzeari buruzko datuak

2026rako, 2025ean egindako ikastaro gehienen beste edizio batzuk daude programatuta.

3. Zer egin nahi dugu 2026an?

2026an, gardentasuna eta informazio publikorako sarbidea sendotzeko eta hobetzeko hainbat jarduera mahaigaineratu dira. Hauek dira aurreikusitako lan ildoak:

- Informazioa eta grafikoak eguneratzea eta berrikustea, formatuak hobetzea, hori guztia hizkuntza ofizialen erabilerarekin, hizkuntza inklusiboarekin eta irakurketa argirako gomendioekin bat etorri.
- Euskarazko publikotasun aktiboaren edukietan hizkera argia berrikustea.
- Araba Irekiaren erabiltzaileen esperientziari buruzko inkesta bat egitea.
- 1/2017 Foru Araua betetzen dela ikuskatzea.
- Geolokalizazio datuak publikotasun aktiboan txertatzeko prozesuan aurrera egitea.
- Deskarga daitezkeen dokumentuen formatuak estandarizatzea.
- Informazio publikoa eskuratzeko eskaeren espedienteen balorazio dokumentala egitea.
- "Herritarren parte hartzearen erregistroa" ezagutaraztea eta haren erabilera sustatzea.
- Kalkulugunearekin lankidetzan aritzea Araba Irekia garatzeko:
 - o Sail bakoitzaren web orria hobetzea, hau da: kargu publiko bakoitzarentzat orri bat sortzea; aurrekontu betearazpenaren bilakaera erakustea eta atxikitako erakunde, organo eta batzordeei buruzko informazioa sartzeta.
 - o Edukien aurrebista grafikoa inplementatzea.
 - o Arauen garapenean parte hartzeari buruzko eduki berri bat sortzea. Gune horrek parte hartzea erraztuko du, prozesuaren gardentasuna hobetuko du eta emaitzak eta onartutako xedapenak argitaratuko dira bertan.



4. Publikotasun aktiboaren betebeharrak betetzen diren ebaluatzea

4.1. Nola baloratzen da Araba Irekiaren publikotasun aktiboa?

Foru sektore publikoak publikotasun aktiboaren betebeharrak nola bete dituen ebaluatzeko, Ebaluazio eta Kalitate Agentziak jarduera publikoaren gardentasuna ebaluatzeko eta jarraitzeko prestatu zuen metodologia erabili da. Metodologia horrek honako dimentsio hauek hartzen ditu kontuan:

- **Argitaratzeko lekua:** informazioa webgune independente batean azaltzen den, edo Araba Irekiaren barruko azpigune batean.
- **Edukia:** gardentasun legeriak argitaratzera behartzen duen informazioa da.
- **Erabilerraztasuna:** pertsona gehienek webgunea erraz bisitatu eta erabil dezaketean, kontuan hartu gabe maila pertsonalean edo inguruan izan ditzaketean mugak.
- **Egitura:** informazioa modu ordenatuan eta koherentean irakurtzeko moduan antolatuta dagoen.
- **Datatzea eta eguneratzea:** alde batetik, argitaratutako informazioak eguneratze edo berrikuspen data baduen; eta, bestetik, data hori ebaluazioaren datatik gertu badagoen.
- **Argitaratzeko modua:**
 1. **Zuzenean:** informazioa webgunean bertan badagoen (HTML, Word, PDF eta antzeko formatuetan) edo zuzenean edukira eramaten duen esteka baten bidez argitaratzen den.
 2. **Zeharka:** sarbidea, zuzenekoa izan gabe, bitarteko esteka baten edo batzuen bidez egiten den.
- **Argitasuna eta ulergarritasuna:** publikotasun aktiboaren informazioa hizkuntza argian aurkezten den, eta zenbait termino argitzeko oharrak ere azaltzen diren.
- **Hizkuntza ez-baztertzalea:** erabilitako hizkuntzak gizarte aniztasuna ikusarazten duen eta datu guztiak sexuaren arabera bereizita argitaratzen diren.
- **Elebitasuna:** informazioa euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzen den, eta hizkuntza ofizialak erabiltzeko jarraibideak betetzen diren.
- **Berrerabiltzea:** argitaratutako informazioaren formatuek informazioa deskargatzea, tratatzea eta berrerabiltzeko aukera ematen duten.

Ebaluazioa egiterakoan, ez da kontuan hartzen argitaratutako informazioaren eduki teknikoa. Izan ere, eduki bakoitzari dagokion arloan eskumena duten sailek prestatzen dute argitaratutako den informazioa.



4.2. Publikotasun aktiboaren araudia

Araua	Artikulua	Informazioaren kategoria
19/2013 Legea	2, 6	Erakundea, antolamendua, plangintza eta ondarea (langile publikoak eta behin behineko langileak barne)
1/2017 FA	4, 5, 6, 14, 22, 50	
19/2013 Legea	8	Arabako Foru Aldundian eta sektore publikoko entitateetan erantzukizun handiena duten goi kargudunak eta pertsonak (foru-kargu publikoak)
1/2017 FA	23	
10/2018 FA	28	
19/2013 Legea	7	Garrantzi juridikoa
1/2017 FA	22, 24	
19/2013 Legea	8	Kontratazioa, hitzarmenak eta dirulaguntzak
1/2017 FA	25	
19/2013 Legea	8.1.a	Kontratuak
1/2017 FA	25.1	
19/2013 Legea	8.1. b	Hitzarmenak
1/2017 FA	25.2.a	
19/2013 Legea	8.1.c	Dirulaguntzak
1/2017 FA	25.3	
19/2013 Legea	8.1. b	Kudeaketa esleipenak
1/2017 FA	25.2. b	
19/2013 Legea	8.1.d, e	Ekonomia, aurrekontua eta estatistika
1/2017 FA	26	
1/2017 FA	27	Publizitate aktiboko betebeharrak zabaltzea
1/2017 FA	28	Gardentasunaren ebaluazioaren eta informazio publikoa eskuratzearen publizitatea
1/2017 FA	49	Herritarren parte hartzea eta lankidetzak
19/2013 Legea	6 bis	Tratamendu jardueren erregistroa

2. taula. Aplikatu beharreko legeria eta informazio kategoriekiko baliokidetasuna

Foru sektore publikoko erakunde guztiek gardentasun araudia bete behar dute. Hauek dira ebaluatutako erakundeak:

Foru entitateak	
Arabako Foru Aldundia	
Foru Erakunde Autonomoak	<ul style="list-style-type: none"> Arabako suhiltzaileak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea Gazteriaren Foru Erakundea
Foru Sozietate Erakundeak:	<ul style="list-style-type: none"> Araba Garapen Agentzia Arabat- Arabako Bideak



	<ul style="list-style-type: none">• Arabako Kalkulu Gunea• Enargi. Arabako Energia Berriztagarriak• Indesa 2010• Naturgolf
Foru Sektore Publikoaren Fundazioak:	<ul style="list-style-type: none">• Vitoria-Gasteiz, Araba Mobility Lab• Fundazioa• Arabako Artium Fundazioa• Santa María Katedrala Fundazioa• Kirolaraba Fundazioa• Añanako Gatz Harana Fundazioa

3. taula. Foru Sektore Publikoko erakundeak

4.3. Arabako Foru Aldundiaren publikotasun aktiboaren ebaluazioaren emaitzak

Publikotasun aktiboa Araba Irekian kontsulta daiteke. Informazio guztia **sei informazio talde** hauen barruan **antolatuta** dago:

- **Foru Aldundia:** informazio instituzionala, antolamendukoa, juridikoa, foru erakundeei buruzkoa eta langileei buruzkoa biltzen ditu.
- **Gobernu planak:** foru gobernuko organoek erabaki politikoak eta administratiboak planifikatzeko, programatzeko, ebaluatzeko eta hartzeko moduari buruzko informazioa jasotzen du.
- **Informazio ekonomikoa:** atal honetan ekonomia, aurrekontu, ondare eta estatistikari buruzko informazioa biltzen da.
- **Informazio publikoa:** informazio publikoa eskuratzeko eskubideari buruzko informazioa biltzen du. Hau da, ebaluazioa, prozedurak eta araudia. [Informazio publikoaren katalogorako](#) esteka ere gehitu da. Katalogo hori argitaratutako informazio guztiaren gordailua da eta dokumentu serieak osatzen ditu.
- **Parte hartzea:** atal honetan azaltzen dira jendaurreko informazioaren izapideari lotutako dokumentazioa, partaidetzako prozesu ireki eta itxiak, eta herritarrek parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko prestatutako kanalak. "Herritarren Parte Hartzearen Erregistroa" izeneko esteka ere badu. Erregistro horretan alta emateak martxan jarriko diren parte hartze prozesuei buruzko oharra jasotzeko balio du.
- **Open data:** herritarren eskura dauden datu irekien atala da.

Araba Irekian, derrigorrezko gardentasun adierazleez gain, **nahitaez argitaratu behar ez diren** baina argitaratutako informazioa osatzen eta zabaltzen duten **edukiak** ere badaude. Adibidez:



- Zenbait erakunde pribaturen (DYNTRA edo Nazioarteko Gardentasuna esaterako) rankingak betetzeko informazioa.
- Foru sailek ematen duten informazio gehigarria, publikotasun aktiboaren betebeharrak hedatzen dituen(a) ([1/2027 Foru Arauaren 27. artikulua](#)).
- Publizitate kanpainetako gastu publikoaren xehetasunak. Informazio horrek, aukeratutako euskarria eta hedabidea jasotzeaz gain (1/2027 Foru Arauaren 26.2.f artikulua), egindako publizitate gastuari buruzko informazioa zehazten du:
 - o Kanpaina bakoitzeko
 - o Sail bakoitzeko
 - o Babesletza kontratuetan

Ondoren, Arabako Foru Aldundiaren adierazleen zerrenda dago (4. taula). Foru aldundiak gardentasunaren nahitaezko adierazleak betetzen dituen eta, beraz, argi eta garbi argitaratzen dituen egiaztatze balio du.

Zehazki, taulak hiru zutabe ditu, eta izenburuek honako hau islatzen dute:

- **Publikotasun aktiboa:** adierazlearen izenari dagokio eta Araba Irekirako esteka gehitzen du.
- **Eguneratzea:** eguneratzeko aldizkakotasuna adierazten du.
- **Bete:** betetzearen ebaluazio orokorra adierazten du.

Betetze mailaren ebaluazio orokorra **semaforo sistemarekin** irudikatzen da bisualki. Gardentasunaren nahitaezko adierazle bakoitzaren betetze maila honela ezartzen du:

- **Berdea:** gutxieneko betetze maila eskuratzeko behar diren emaitzak lortzen dituenean.
- **Horia:** adierazlearen dimentsio baten edo gehiagoren ebaluazioak ez duenean gutxieneko betetze maila lortzen.
- **Gorria:** informazioa argitaratzen ez denean.

PUBLIZITATE AKTIBOA	EGUNERAT.	BETE
Gobernu Irekiaren Ataria	Iraunkorra	
Funtzioak	Iraunkorra	
Araudia	Iraunkorra	
Organigrama	Iraunkorra	
Egoitza	Iraunkorra	
Jendeari arreta emateko ordutegia	Iraunkorra	
Kontaktua	Iraunkorra	
Langileak: zenbatekoa	Urtekoa	
Langileak: urteko ordainsari osoak, tartearen, mailaren eta lanpostuaren arabera	Urtekoa	
Langileak: langile finkoen eta aldi baterako langileen ehunekoa	Urtekoa	
Langileak: esleitutako hizkuntza eskakizunak, eta egiaztatutako ehunekoa	Urtekoa	
Langileak: bateragarritasuna baimentzeko edo onartzeko emandako ebazpenak	Iraunkorra	



Lan eskaintza publikoa	Iraunkorra	
Langile liberatuak	Urtekoa	
Aholkulariak eta idazkariak: lanpostuen zerrenda	Iraunkorra	
Aholkulariak eta idazkariak: izendapenak eta uzteak	Iraunkorra	
Aholkulariak eta idazkariak: atxikipen organikoa eta funtzioak	Iraunkorra	
Aholkulariak eta idazkariak: urteko ordainsariak	Urtekoa	
Aholkulariak eta idazkariak: egiaztatutako hizkuntza eskakizunen ehunekoak	Urtekoa	
Urteko eta urte anitzeko planak eta programak: - helburu zehatzak - jarduerak, bitartekoak eta horiek lortzeko aurreikusitako denbora - betetze maila eta emaitzak - jarduera plan bakoitzerako aurreikusitako partaidetza moduak	Iraunkorra	
Jarduera publiko esanguratsuen zerrenda	Iraunkorra	
Planen eraginaren aurretiazko ebaluazioak	Iraunkorra	
Gobernu Planaren eta jarduera esanguratsuen jarraipena. Edukia: betearazpen maila eta aldaketak	Urtekoa	
Ebaluazioak: politika publikoenak, emaitzenak eta zerbitzu publikoen kalitatearenak	Iraunkorra	
Parte hartzeko kanalak foru-politika publikoak identifikatzeko, lantzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko	Iraunkorra	
Ondasun higiezin zerrenda	Urtekoa	
Foru sektore publikoko entitateak	Iraunkorra	
AFAk % 50etik beherako partaidetza duen erakunde	Iraunkorra	
AFAko kargu publikoak: CV	Iraunkorra	
AFAko kargu publikoak: ordainsariak	Iraunkorra	
AFAko kargu publikoak: egiaztatutako hizkuntza eskakizunen ehunekoak	Iraunkorra	
Entitate publikoetako goi kargudunen CV	Iraunkorra	
Entitate publikoetako goi kargudunen ordainsariak	Iraunkorra	
Kargu publikoak: beste organo eta erakunde batzuetan duten ordezkariak, baita dituzten bestelako kargu publikoak ere	Iraunkorra	
Kargu publikoak: ondasun eta interesen aitortpenak	Iraunkorra	
Kargu publikoak: egin beharreko jardueren bateragarritasunari buruz emandako ebazpenak	Iraunkorra	
Diputatuak: bidaiak gastuak	Hilekoa	
Jardueren agenda instituzionala	Iraunkorra	
Indarrean dagoen araudia	Iraunkorra	
Onartutako araudia	Iraunkorra	
Lantzen ari den araudia: araugintzako foru dekretuen proiektuak entzunaldiaren edo jendaurreko informazioaren izapidea egiten denean argitaratuko ditu	Iraunkorra	
Indarreko legeria sektorialaren arabera izapidetzean jendaurrean jarri behar diren dokumentuak	Iraunkorra	
Herritarren parte-hartze prozesuen memoriak eta ondorioak	Urtekoa	
Gidalerroak, jarraibideak, erabakiak, zirkularrak eta norbanakoek edo beste organo batzuek egindako kontsulten erantzunak, baldin eta Zuzenbidea interpretatzen badute edo ondorio juridikoak badituzte	Iraunkorra	
Foru Gobernu Kontseiluaren bilkuran aztertzeko gaien zerrenda	Astean behin	
Foru Gobernu Kontseiluak hartutako erabakien laburpenak	Astean behin	
Administrazioarekiko auzi errekurtsioen txostenak	Urtekoa	



Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordearen irizpenak	Iraunkorra	
KONTRATUAK: Xedea	Iraunkorra	
KONTRATUAK: Iraupena	Iraunkorra	
KONTRATUAK: lizitazioaren eta esleipenaren zenbatekoa	Iraunkorra	
KONTRATUAK: erabilitako prozedura	Iraunkorra	
KONTRATUAK: publizitatea egiteko erabili diren tresnak	Iraunkorra	
KONTRATUAK: prozeduran parte hartu duten lizitatuzaileen kopurua	Iraunkorra	
KONTRATUAK: esleipendunaren identitatea	Iraunkorra	
KONTRATUAK: klausula sozialak (berdintasunekoak barne)	Iraunkorra	
KONTRATUAK: aldaketak	Iraunkorra	
KONTRATUAK: luzapenak	Iraunkorra	
KONTRATUAK: atzera egitea eta uko egitea	Iraunkorra	
Erakundeak eta kontratazio-organoak: izena, telefonoa eta posta helbideak eta helbide elektronikoak, kontratazio-mahaien osaera, horien aktak eta ebazpenak	Iraunkorra	
Sektore publikoko kontratuen legerian aurreikusitako prozedura bakoitzaren bidez esleitutako kontratuen aurrekontuaren bolumenaren ehunekoari buruzko datu estatistikoak	Urtekoa	
Mikroenpresa txiki eta ertainen (ETE) kategorian esleitutako kontratuetan duten partaidetzaren ehunekoari buruzko informazio estatistikoa	Urtekoa	
HITZARMENAK: sinatzaileak	Urtekoa	
HITZARMENAK: xedea	Urtekoa	
HITZARMENAK: iraupena	Urtekoa	
HITZARMENAK: aldaketak	Urtekoa	
HITZARMENAK: prestazioak eta betebeharrak ekonomikoak	Urtekoa	
HITZARMENAK: klausula sozialak, tartean berdintasunekoak	Urtekoa	
DIRULAGUNTZAK ETA LAGUNTZAK: deialdia	Urtekoa	
DIRULAGUNTZAK ETA LAGUNTZAK: zenbatekoa	Urtekoa	
DIRULAGUNTZAK ETA LAGUNTZAK: helburua	Urtekoa	
DIRULAGUNTZAK ETA LAGUNTZAK: onuradunak	Urtekoa	
DIRULAGUNTZAK ETA LAGUNTZAK: klausula sozialak (berdintasunekoak barne)	Urtekoa	
Dirulaguntzen plan estrategikoa	Hiru urtean behin	
Alderdi politikoei emandako dirulaguntzak	Lau urtean behin	
KUDEAKETA ESLEIPENAK: xedea	Urtekoa	
KUDEAKETA ESLEIPENAK: aurrekontua	Urtekoa	
KUDEAKETA ESLEIPENAK: iraupena	Urtekoa	
AURREKONTUAK: aurrekontuen partida nagusien deskribapena	Urtekoa	
AURREKONTUEN betearazpena	Hilekoa	
Urteko kontuak	Urtekoa	
HKEEak egindako kontu auditoretzako eta fiskalizazioko txostenak	Urtekoa	
Superabita biztanleko	Urtekoa	
Autonomia fiskala	Urtekoa	
Foru Aldundiaren finantzatzeko gaitasunak/beharrak diru-sarrera finantzarioen edo probintziako Barne Produktu Gordinaren (BPG) gaineko kontabilitate nazionalari dagokionez ordezkatzeko duen proportzioa	Urtekoa	
Zerga sarrerak biztanleko	Urtekoa	
Gastua biztanleko	Urtekoa	



Inbertsioa biztanleko	Urtekoa	
Inbertsioa udalerriko	Urtekoa	
Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea	Hilekoa	
Balio Erantsiaren gaineko Zergaren itzulketak egiteko urteko batez besteko epea, Hileko Itzulketen Erregistroari dagokionez	Sei hilekoa	
Aurrekontu egonkortasunaren eta finantza jasangarritasunaren arloko helburuak betetzeari buruzko informazioa	Urtekoa	
Foru sektore publikoaren finantzaketari buruzko oinarrizko informazioa	Urtekoa	
Zorpetze biztanleko	Urtekoa	
ZORPETZE ERLATIBOA ordezkatzan duten portzentaje gisa kalkulatuta	Urtekoa	
ZORPETZEA: denbora bilakaera	Urtekoa	
ZORPETZEA: epeak	Urtekoa	
ZORPETZEA: oinarrizko ezaugarriak	Urtekoa	
ZORPETZEA: Aldundiak bere merkataritza sozietateei baimendutako zorpetze eragiketak	Urtekoa	
Emandako abalak	Urtekoa	
Gastu publikoa publizitate kanpainetan	Urtekoa	
Zerbitzu publikoen betetze maila eta kalitatea baloratzeko informazio estatistikoa	Urtekoa	
Sarrien eskatzen diren informazioak	Urtekoa	
Eskuratzeko eskubidea erabili dutenei emandako informazioa	Urtekoa	
Publizitate aktiboaren eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen txostena	Urtekoa	
Herritarrek parte hartzeari eta laguntzeari buruzko txostena	Urtekoa	
Tratamendu jardueren erregistroa	Iraunkorra	

4. taula. AFaren betebeharren egiaztatze zerrenda

Egiaztapen zerrenda aztertu ondoren, ikus daiteke Arabako Foru Aldundiak publikotasun aktiboaren betebeharrak betetzen dituela. Hau da betetze mailaren ehunekoa:

	2024	2025
Erabat betetzen du	%72	%73
Zati batean betetzen du	%23	%19
Ez du betetzen	%5	%8

5. Taula. AFaren betetzearen ehunekoa

Gora egin du publikotasun aktiboaren adierazleak ez betetzeak. Izan ere, hitzarmenei buruzko informazioa argitaratzeko dago, Hitzarmenen Erregistroa kudeatzeko aplikazio berri baten zain gaudelako. Hala ere, ALHAOn aldian-aldian argitaratzen da sinatutako hitzarmenen laburpena.



4.4. Foru sektore publikoko erakundeen publikotasun aktiboaren ebaluazioaren emaitzak

Foru sektore publikoan publikotasun aktiboa kudeatzeko bi eredu daude:

- [Santa Maria Katedrala](#), [Artium](#) eta [Añanako Gatz Harana](#) fundazioek **modu autonomoan** kudeatzen dituzte edukiak beren webgune instituzionaletan.
- Gainerako foru erakundeek **Foru Aldundiarekin lankidetzan** kudeatzen dituzte edukiak. Horretarako, edukiak prestatu eta bidali egiten dituzte, foru aldundiak edita ditzan eta erakunde bakoitzarentzat sortutako **Araba Irekiaren azpiguneetan** argitara ditzan. Gainera, azpiguneen argitalpen guztiak Araba Irekiaren Informazio publikoaren katalogoan ikus daitezke.

Horrela, foru erakundeek **publikotasun aktiboaren betebeharrak betetzen dituzten ebaluatzeko**, foru aldundiaren adierazleak egiaztatzeko zerrendaren eredu bera erabiliko da. Eredu hori erakunde bakoitzari, hau da, erakunde (FEA), sozietate publiko (FSP) edo fundazio (FF) bakoitzari, aplikatu behar zaizkion legezko eskakizun mailetara egokituta dago.

6.taulan, emaitza orokorrak ageri dira, foru erakundeka.

Entitatea	Urtea	Erabat betetzen du	Zati batean betetzen du	Ez du betetzen
Gizarte Ongizaterako F.E.A. (GOFE)	2025	%69	%27	%4
	2024	%37	% 51	% 12
Gazteriaren F.E.A. (GFE)	2025	%60	%40	%0
	2024	%98	%2	%0
Arabako Suhiltzaileen F.E.A.	2025	%96	%2	%2
	2024	%98	%0	2%
Araba Garapen Agentzia F.S.P. (AGA)	2025	%100	%0	%0
	2024	%100	%0	%0
Arabat F.S.P.	2025	%98	%2	%0
	2024	%95	%5	%0
Arabako Kalkulu Gunea F.S.P. (AKG)	2025	%97	%3	%0
	2024	%97	%3	%0
Naturgolf F.S.P.	2025	%100	%0	%0
	2024	%100	%0	%0
INDESA 2010 F.S.P.	2025	%97	%3	%0
	2024	%46	%35	%19
ENARGI F.S.P.	2025	%97	%0	%3
	2024	%97	%0	%3
Kirolaraba F.F.	2025	%100	%0	%0
	2024	%100	%0	%0



Vitoria-Gasteiz, Araba Mobility Lab F.F.	2025	%100	%0	%0
	2024	%100	%0	%0
Artium F.F.	2025	%95	%0	%5
	2024	%93	%2	%5
Santa María Katedrala F.F.	2025	%100	%0	%0
	2024	%100	%0	%0
Añanako Gatz Harana F.F.	2025	%40	%40	%20
	2024	%45	%45	1%0

6. taula. Foru erakundeen betebeharren emaitza 2024-2025

Betetzea	Foru Entitatea
● %100	AGA, Naturgolf, Kirolaraba, Araba Mobility Lab, Santa Maria Katedrala
● %95–99	Arabat, Suhiltzaileak, AKG, INDESA, ENARGI, Artium
● %60–70	GOFE, GFE
● <%50	Añanako Gatz Harana

7. taula. Foru erakundeen betetze mailaren egiaztapenaren laburpena

Foru erakundeen emaitzak, oro har, positiboak dira:

1. Hamalau erakundeetatik hamaikak **erabateko betetze mailaren** % 95 gainditzen dute, eta horietako bost % 100ra iristen dira.
2. Nahitazko gardentasun adierazle bat **partzialki betetzeko** foru erakundeen arrazoi ohikoenak hauek dira:
 - Ez dago edukien euskarazko bertsiorik.
 - Adierazleak adierazten dituen nahitazko datuen % 100 ez da argitaratzen.
 - Datuak eguneratzeko atzerapena.

5. Araba Irekian jasotako bisitak

Zilegitasun, leialtasun eta gardentasun printzipioen arabera, Araba Irekian nabigazio datuen tratamenduari buruzko informazioa ematen da [Pribatutasun Politikan](#). Tratamendu hori "[Tratamendu jardueren foru erregistroan](#)" jasota dago (T72 GARDENTASUNA ETA INFORMAZIO PUBLIKOA ESKURATZEA).

Gainera, Araba Irekiak erabiltzailearen nabigatzailean informazioa biltegitzen eta berreskuratzen duten cookieak erabiltzen ditu. Cookieak onartzen badira, nabigazioari buruzko informazioa lortzen da helburu operatibo, funtzional eta analitikoekin.

Gardentasun txostenean agertzen diren metrikak egiteko, "Google Analytics" erabili da. Tresna horren bidez, gehien kontsultatutako edukiei buruzko informazioa lortu da (1/2017 Foru Arauaren 28.2.b) artikuluan xedatutakoaren arabera).



Hauek izan dira 2025eko urtarrila eta abendua bitartean gehien bisitatu diren hamar orrialdeak:

1. Foru Gobernu Kontseilua
2. Kargu publikoak
3. Aurrekontuak
4. Araudi garapenean parte hartzea
5. Langile publikoak
6. Partaidetzako aurrekontuak
7. Kargu publikoen eta behin-behineko langileen ordainsariak
8. Diputatu Nagusiaren Saila
9. Informazio publikoaren katalogoa
10. Lege informazioa

6. Informazio publikoaren eskaeren izapidetzea ebaluatzea

6.1. Zer informazio mota eskatzen dute herritarrek?

Atal honetan, 2025ean erregistratutako informazio publikoaren eskaeren (INFOPU) zerrenda erakusten da. Espedienteak izapidetu dituzten sailen arabera daude ordenatuta. Gainera, espediente bakoitzean datu hauek gehitzen dira: eskaeraren gaia, ebazpenaren zentzua eta erreklamaziorik aurkeztu duten Gardentasunaren Foru Kontseiluan.

Informazio publikoko eskaeretan gehien errepikatzen diren gaiak honako hauek dira:

- Publizitate kanpainetako gastua
- Oposizioetako azterketak
- Zergei buruzko informazio estatistikoa
- Laguntza baliabideei buruzko informazioa
- Hainbat kontzejuren kontuak
- Hirigintza plangintzako espedienteak
- Abeltzaintza Zerbitzuaren zehapen espedienteak
- Instalazio fotovoltaikoak instalatzeko proiektuak

SAILA: DIPUTATU NAGUSIA

Infopu esp.	Eskaera	Ebazpena	Erreklamazioa
10/2025	Osasun garraioa	Baietsia	Ez
11/2025	Osasun garraioa (Gurutze Gorria)	Baietsia	Ez
47/2025	Txirrindularitza itzulia	Baietsia	Ez
59/2025	Publizitate kanpainak	Baietsia	Ez



SAILA: ENPLEGUA, MERKATARITZA, TURISMOA ETA FORU

ADMINISTRAZIOA

Infopu esp.	Eskaera	Ebazpena	Erreklamazioa
2/2025	Oposizioetako azterketak	Ez onartua GIBGOL, 13 art.	Ez
4/2025	Oposizioetako azterketak	Ez onartua GIBGOL, 13 art.	Ez
55/2025	Arabako Kalkulu Gunea	Ebatzi gabe	Ez
76/2025	Lanpostuak	Baietsia	Bai
80/2025	Arabako Kalkulu Gunea	Ez onartua GIBGOL, 18.1.b) art.	Ez
91/2025	Lekualdatze lehiaketa	Baietsia	Ez

SAILA: OGASUNA, FINANTZAK ETA AURREKONTUAK

Infopu esp.	Eskaera	Ebazpena	Erreklamazioa
34/2025	Zerga itunduen bilketa	Baietsia	Ez
35/2025	Entitate pribatuen kontuak	Ezetsia GIBGOL, 14.1 art.	Ez
36/2025	Udalerrientzako konpentsazioak	Ez onartua GIBGOL, 18.1 art.	Ez
37/2025	Errenta kanpaina	Zati batean baietsia GIBGOL, 14.1 art.	Bai
42/2025	GSDNra bideratua	-	-
61/2025	PFEZ	Baietsia	Ez
66/2025	BEZ	Baietsia	Ez

SAILA: BERDINTASUNA, EUSKARA ETA GOBERNANTZA

Infopu esp.	Eskaera	Ebazpena	Erreklamazioa
9/2025	Foru suhiltzaileak	Baietsia	Ez
13/2025	Hitzarmena	Baietsia	Ez
27/2025	Foru Gobernu Kontseiluaren Dekretua	Ez onartua GIBGOL, 18.1. art.	Bai
28/2025	Publizitate kanpainak	Baietsia	Ez
52/2025	Donemiliagako Udalera bideratua	-	-
62/2025	Suteen kudeaketa	Zati batean baietsia GIBGOL, 18.1.c) art.	Ez



SAILA: EKONOMIA GARAPENA ETA JASANGARRITASUNA

Infopu esp.	Eskaera	Ebazpena	Erreklamazioa
83/2025	Parke naturalak	Baietsia	Ez
86/2025	Energia berriztagarriak	Baietsia	Ez

SAILA: GIZARTE POLITIKAK

Infopu esp.	Eskaera	Ebazpena	Erreklamazioa
1/2025	COVID iraunkorren balorazioak	Baietsia	Ez
3/2025	Arreta goiztiarra	Baietsia	Ez
15/2025	Banakako Arreta Programa	Baietsia	Ez
16/2025	Tutoretzapeko adingabeak	Baietsia	Ez
21/2025	24 orduko krisi zentroko hitzarmenak	Baietsia	Ez
23/2025	Ondare erreklamazioko espedienteak	Baietsia	Ez
38/2025	Tutoretzapeko adingabeak	Baietsia	Ez
45/2025	Haurrak babesteko sistema	Baietsia	Ez
46/2025	Beroa Fundazioa	Baietsia	Ez
48/2025	Beroa Fundazioa	Baietsia	Ez
53/2025	Tutoretzapeko adingabeak	Baietsia	Ez
54/2025	Eraiki Bide Fundazioa	Baietsia	Ez
57/2025	Laguntza txakurrak	Baietsia	Ez
58/2025	Egoitzak	Ebatzi gabe	Ez
63/2025	Eraiki Bide Fundazioa	Baietsia	Ez
71/2025	Tutoretzapeko adingabeak	Baietsia	Ez
79/2025	Tutoretzapeko adingabeak	Ebatzi gabe	Ez
90/2025	Harrera familiak	Ebatzi gabe	Ez

SAILA: MUGIKORTASUN JASANGARRIA ETA BIDE AZPIEGITURAK

Infopu esp.	Eskaera	Ebazpena	Erreklamazioa
8/2025	Mugikortasun Iraunkorreko II. Plana	Ezetsia GIBGOL, 18.1.e) art.	Ez
40/2025	Desjabetzeak	Baietsia	Ez
41/2025	Autobusen ordutegia	Baietsia	Ez

SAILA: LURRALDE OREKA ETA LURRALDE ANTOLAMENDUA

Infopu esp.	Eskaera	Ebazpena	Erreklamazioa
-------------	---------	----------	---------------



5/2025	Amaritako Kontzejuaren kontuak	Ezetsia GIBGOL, 19.4. art.	Bai
6/2025	Hainbat espediente	Baietsia	Ez
12/2025	Mendibilgo Kontzejuaren kontuak	Ezetsia GIBGOL, 19.4. art.	Ez
14/2025	Amaritako Kontzejuaren espedienteak	Zati batean baietsia GIBGOL, 19.4. art.	Ez
24/2025	Mendibilgo Kontzejuaren kontuak	Ez onartua GIBGOL, 18.1.e) art.	Bai
25/2025	Mendibilgo Kontzejuaren kontuak	Ez onartua GIBGOL, 18.1.e) art.	Bai
26/2025	Hainbat kontzejuren kontuak	Ezetsia GIBGOL, 19.4. art.	Bai
29/2025	Hainbat kontzejuren kontuak	Ez onartua GIBGOL, 18.1.e) art.	Ez
30/2025	Hainbat espediente	Baietsia	Bai
31/2025	Arau subsidiarioei buruzko espedientea	Baietsia	Ez
32/2025	Eguzki instalazio fotovoltaikoak	Baietsia	Ez
50/2025	Eguzki instalazio fotovoltaikoak	Baietsia	Ez
51/2025	Toki erakundeek emandako zerbitzuak	Baietsia	Ez

SAILA: NEKAZARITZA

Infopu esp.	Eskaera	Ebazpena	Erreklamazioa
17/2025	Vitoria-Gasteizko HAPO	Baietsia	Ez
18/2025	Mugarritze espedientea	Ezetsia	Ez
19/2025	Lurzatiak biltzeko planoak	Ebatzi gabe*	Ez
20/2025	Bide baten proiektua	Ez onartua GIBGOL, 18.1.e) art.	Ez
22/2025	Lurzatiak biltzeko planoak	Ebatzi gabe*	Ez
33/2025	Elikadura aztarnaren azterketa	Baietsia	Ez
43/2025	Zehapen espedientea	Ezetsia GIBGOL, 15 art.	Bai
44/2025	Zehapen espedienteak	Baietsia	Bai
60/2025	Eskatutako informazioa sortu duten erakunde publikoetara bideratua	-	-
64/2025	Mendi mugaketa	Baietsia	Ez
65/2025	Animalien garraioa	Baietsia	Bai
74/2025	Eguzki instalazio fotovoltaikoak	Ez onartua GIBGOL, 18.1.d) art.	Ez



75/2025	Eguzki instalazio fotovoltaikoak	Zati batean baietsia 1/2027 FAren 18.1. art.	Ez
77/2025	Eguzki instalazio fotovoltaikoak	Zati batean baietsia 1/2027 FAren 18.1. art.	Ez
84/2025	Eguzki instalazio fotovoltaikoak	Zati batean baietsia 1/2027 FAren 18.1. art.	Ez
87/2025	Zehapen espedienteak	Baietsia	Ez
89/2025	Animaliekin egindako ekitaldiak eta lekualdatzeak	Baietsia	Ez

* Ebatzi gabe: ez zen ebazpenik eman, baina txostenak bidali ziren.

SAILA: KULTURA ETA KIROLA

Infopu esp.	Eskaera	Ebazpena	Erreklamazioa
7/2025	Zehapen espedientea	Baietsia	Ez
39/2025	Haurrentzako eskola futbola	Baietsia	Ez
67/2025	Eskola kirola	Baietsia	Ez
78/2025	Ondarearen kontserbazioa	Baietsia	Ez
85/2025	Estibalizko Desagrabioen Jaia	Baietsia	Ez

8. taula. 2025ean jasotako informazio publikoko eskaeren taula multzoa, sailka

6.2. Jasotako eskaerak

2025ean, Arabako Foru Aldundiak informazio publikoko 87 eskaera jaso ditu, 2024an baino % 47 gehiago.

87 eskaerak 48 eskatzailek bidali dituzte. 48 eskatzaile horietatik 12k eskabide bat baino gehiago aurkeztu dute:

- pertsona fisiko batek 18 eskaera (10 Lurralde Orekarako; 4 Nekazaritzarako; 3 Finantza eta Aurrekontuetarako; 1 Gobernantzarako).
- pertsona juridiko batek 7 eskaera (5 Lurralde Antolamendurako; 1 Nekazaritzarako; 1 Gobernantzarako).
- pertsona fisiko batek 5 eskaera (4 Nekazaritzarako; 1 Kulturarako).
- pertsona fisiko batek 4 eskaera (4 Gizarte Politiketarako).
- pertsona juridiko batek 3 eskaera.
- 5 pertsona fisikok 2 eskaera.
- 2 pertsona juridikok 2 eskaera.



Pertsona berak eskaera bat baino gehiago egiten baditu, eskaera horiek ebazpen bakar batean meta daitezke. Hauek dira metatutako ebazpenak dituzten 3 espedienteak:

- **INFOPU 35/2025:** 36/2025 eta 37/2025 ditu.
- **INFOPU 29/20245:** 30/2025, 31/2025 eta 32/2025 ditu.
- **INFOPU 50/2025:** 51/2025.

Arabako foru sektore publikoak ez duenean eskatutako informazioa, erantzuteko eskumena duten erakundeetara bideratzen da; horixe da informazio publikoaren eskaera hauen kasua:

- **INFOPU 52/2025:** Donemiliagako Udalera bideratua.
- **INFOPU 60/2025:** eskatutako informazioa sortu duten erakunde publikoetara bideratua.
- **INFOPU 66/2025:** Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusira bideratua.

Eskatutako informazioa sail baten baino gehiagoren esku dagoenean, osorik edo zati batean sortu duen saileko unitateari dagokio izapidetzea. Hori da informazio publikoaren eskaera honen kasua:

- **INFOPU 77/2025:** ebazpena eta jakinarazpena Nekazaritza Sailari dagozkio, baina Kultura eta Kirol Sailak eta Mugikortasun Iraunkorraren eta Bide Azpiegituren Sailak ere txostenak aurkeztu dituzte.

9. taulan, jasotako informazio publikoaren eskaeren kopurua aurreko urtearekin alderatzen da:

Saila	2024	2025
Diputatu Nagusia	3	4
Berdintasuna, Euskara eta Gobernantza	11	6
Ekonomia Garapena eta Jasangarritasuna	2	9
Enplegua, Merkataritza, Turismoa eta Foru Administrazioa	12	6
Ogasuna, Finantzak eta Aurrekontuak	1	2
Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamendua	9	18
Mugikortasun Jasangarria eta Bide Azpiegiturak	4	3
Gizarte Politikak	3	17
Nekazaritza	7	17
Kultura eta Kirola	7	5
GUZTIRA	59	87

9. taula. Sail bakoitzak jasotako informazio publikoaren eskaeren kopuruaren konparazioa

6.3. Eskaerei erantzutea

2025ean, informazio publikoaren eskaeren % 95 erantzun ziren. Kalkulu horretan sartzen dira ebazpen bidez erantzundako eskaerak (72 eskaera); metatutakoak (6 eskaera), administrazio




eskudunari bideratutakoak (3 eskaera), eta ebazpenik gabe erantzun zuzena jaso zutenak (2 eskaera).

Bestalde, pertsona berak biltzen ditu **Nekazaritza Sailak** izapidetutako informazio publikoko espediente gehienak. 2024an eta 2025ean, gai berari buruzko hainbat eskaera aurkeztu ditu: behin eta berriz entregatutako dokumentazioa edo jada argitutako gaiari buruzko informazioa eskatu du. Zehazki, INFOPU 19/2025 eta INFOPU 22/2025 eskaerretarako, Nekazaritza Garapeneko Zerbitzuak pertsonalki erantzun zion, eskura zuen informazioari buruzko azalpenak eman zizkion eta aurreko espedienteetako dokumentuetarako sarbidea eman zion. Beste dokumentaziorik eman ez izanaren arrazoia da halakorik ez egotea AFAn.

Gizarte Politiken Sailean, hiru eskaera geratu dira ebatzi eta jakinarazi gabe. Sail horretan gardentasuna kudeatzeko izendatutako unitateak jakinarazi digu egoera horren arrazoia dela ez dutela sarbiderik AFAn espedienteak izapidetzeko gunerako, eta, horregatik, ezin izan dituztela bidali eginda zituzten erantzunak. Arazo hori konpondu eta izapidetzeko sarbidea izan arte itxaroten ari dira.

Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzan 2025eko eskaera baten ebazpena eta jakinarazpena egitea falta da.



- Gizarte Politikak: 15 (%17)
- Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamendua: 17 (%20)
- Nekazaritza: 15 (%17)
- Ogasuna, Finantzak eta Aurrekontuak: 9(%10)
- Enplegua, Merkataritza, Turismoa eta Foru Administrazioa: 5 (%6)
- Berdintasuna, Euskara eta Gobernantza: 6 (%7)
- Kultura eta Kirola: 5 (%6)
- Diputatu Nagusia: 4 (%5)
- Mugikortasun Jasangarria eta Bide Azpiegiturak: 3 (%3)
- Ekonomia Garapena eta Jasangarrtasuna: 2 (%2)

1.grafikoa. Ebatzitako informazio publikoaren eskaeren zenbatekoa eta ehunekoa

Foru Aldundiak hilabete du eskaerei erantzuteko eta [araudiak ezartzen duen prozedura](#) jarraitu behar du.


[19/2013 Legeak](#) eskaerak onartzen ez diren bost egoera zerrendatzen ditu. 2025ean, eskaeren **% 14 ez dira onartu**. 6.1 ataleko (6.1. Zer informazio mota eskatzen dute herritarrek?) 8. taulan azaltzen da onartu ez den eskaera bakoitza ez onartzeko arrazoia.

Eskaerak baiestea da arau orokorra, informazio publikorako sarbide unibertsalaren printzipioa dela eta. Hala gertatu da 2025ean: jasotako eskaeren **% 68 baietsi dira**.

Foru aldundiak mugatu egin du eskatutako informaziorako sarbidea, [Legeak ezarritako kasuetan](#). Ezesteko ebazpenetan, informazioa ez emateko inguruabar zehatzak arrazoitu dira. 2025ean, **eskaeren % 8ri informazioaren zati bat ukatu zaio, eta % 10i informazio guztia**. 6.1 ataleko (6.1. Zer informazio mota eskatzen dute herritarrek?) 8. taulan azaltzen da ezetsitako eskaera bakoitza ezesteko arrazoia. Beste alde batetik, 2025ean ez du inork atzera egin.



2025eko espedienteen berrikuspenak erakusten du eskaera gehienak ebatzi eta baietsi direla. Horrek adierazten du informazio publikorako sarbidea errazteko joera orokorra dagoela. Ez onartutakoak eta ezetsiak araudiak aurreikusten duen informaziorako sarbidearen salbuespenak dira. Zati batean baietsitako ebazpenak ere badaude, batez ere zerga arloan, gizarte programetan edo entitate pribatuen informazioan. Azkenik, eskaeraren bat ez da garaiz ebatzi, batez ere arlo tekniko konplexuetan, hala nola hirigintza espedienteetan eta laguntza zerbitzuetako espedienteetan.



2 grafikoa. Informazio publikoaren ebazpenen zentzua, aurreko urtearekin alderatuta

6.4. Zenbat denbora behar izaten du Foru Aldundiak eskaerei erantzuteko?


6.4.1. Ebazteko epea, sailka

Grafiko honetan, ebazteko epeak (guztiz baietsiak edo zati batean baietsiak, ezetsiak eta ez onartutakoak) sailka eta betetzen diren erakusten da. Datuekin honako hau ondoriozta daiteke:

- Jaitsi egin dela sailetan ebazteko batez besteko epea.
- Ebazteko oso epe luzea duten zenbait eskaerak eragin dezaketela batez besteko epea ez izatea eskaerak ebazteko denborarako baliozko adierazlea.
- Eskaera gehienak legezko epeak gertu ebatzi direla (30 egun natural).
- Ebazteko epe luzeak dituzten eskaeren ehunekoa txikia dela.
- Sail batzuek legezko epearen azpitik ebazten dutela.



- Eskara gehien jasotzen dituzten sailek berehala ebazten dutela.



3. grafikoa. Ebazteko epea, sailka



10. taulan adierazten da sail bakoitzak eskaerak ebazteko zenbat egun behar dituen batez beste.

Saila	Bataz bestekoa 2024	Bataz bestekoa 2025	Eboluzioa
Kultura eta Kirola	45	5	↓ %89
Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamendua	24	11	↓ %54
Diputatu Nagusia	35	20	↓ %43
Ogasuna, Finantzak eta Aurrekontuak	57	22	↓ %61
Mugikortasun Jasangarria eta Bide Azpiegiturak	45	40	↓ %11
Gizarte Politikak	25	43	↑ %72
Berdintasuna, Euskara eta Gobernantza	43	44	↑ %2
Ekonomia Garapena eta Jasangarritasuna	60	51	↓ %15
Enplegua, Merkataritza, Turismoa eta Foru Administrazioa	56	54	↓ %4
Nekazaritza	48	129	↑ %169

10. taula. Ebazteko batez besteko epea sailka

Datuek adierazten dutenez, 10 sailetatik 8k hobetu edo mantendu egin dute ebazpena emateko eta jakinarazteko epea.

Informazio publikoaren eskaerak ebazteko eta jakinarazteko batez besteko epea luzatu duten bi sailek azaldu dute zergatik izan den:

- **Gizarte Politiken Saila:** "2025ean epeak luzatu egin dira, funtsean, azken hilabeteetan ezin izan ditugulako TGune bidez bidali eginda genituen erantzunak. Gai hori noiz konponduko eta sarbidea berriro noiz emango diguten zain gaude".
- **Nekazaritza Saila:** "epea luzatzea espediente oso konplexuen eta erreplikakorren ondorio da. Kasu horiek izapide gehigarriak behar izan zituzten, eta atzerapen nabarmenak eragin zituzten, batez besteko epearen kalkuluan eragina izan zutenak. Bereziki, atzerapenak hiru arrazoiengatik gertatu ziren:
 - o pertsona berak hainbat eskaera aurkeztu zituen jada ebaztitako gaietarako buruz. Horrek espedienteak berreraikitze eta dokumentazioa aurkitzea ekarri zuen, prozeduraren arabera erantzuteko;
 - o beste espediente batzuk mugaketa baten onespeneren mende zeuden. Beraz, ezin izan zen erantzun osoa eman, zegokion txosten teknikoa eta juridikoa izan arte. Kasu horietan, izapidea eten egin zen onespenera jaso arte, eta legezko epeak eten edo luzatu egin ziren;



- zehapen espedientei buruzko eskaerak jaso ziren. Kasu horietan, datuen babesa eta sarbide mugak zehatz-mehatz aztertu behar izan ziren, eta, horrez gain, dokumentuak prestatu behar izan ziren, informazio pertsonala ezabatuz, eta horrek kudeaketa denbora handitu zuen".

Hori berriro gerta ez dadin, barneko izapidetze prozedurak indartu egin dira, etorkizunean erantzuteko denborak hobetzeko helburuarekin. Errefortzu horien artean daude objektua hobeto mugatzea, aldez aurreko koordinazioa eta, beharrezkoa denean, epeak formalki etetea edo luzatzea.

6.4.2. Ebazteko batez besteko epea


11. taulan jasotzen dira 2025eko emaitza nagusiak, foru aldundiak eskaerei erantzuteko behar izan duen denborari dagokionez.

Epeak egunetan eta ebazpenen kopurua	2024	2025
Epean jakinarazitako ebazpenak (30 egun edo gutxiago)	26 (% 50)	38 (% 53)
31 eta 50 egun bitartean jakinarazitako ebazpenak	10 (% 19)	15 (% 20)
50 egun baino gehiagotan jakinarazitako ebazpenak	16 (% 31)	19 (% 26)
Ebazteko batez besteko epea (egun naturalak)	43	49
Moda (gehien errepikatzen diren epeak)	29	7-9-12-31-48
Mediana (epeen balio zentrala)	30	28

11.taula. Ebazteko epeari buruzko adierazleak

Joera orokorrak erakusten du ebazpena egiteko epeak jaitsi egin direla, nahiz eta eskaeren kopuruak gora egin duen.


4. grafikoak erakusten du ebazteko batez besteko epearen bilakaera. Epe hori 2025ean luzatu egin zen 2024koarekin alderatuz gero, baina 10 sailetatik 8k ebazpena emateko eta jakinarazteko epea hobetu edo egonkortu egin zuten. Gainera, beste bi adierazleren emaitzak handitu egin ziren: epe barruan jakinarazitako ebazpenen ehunekoa eta hori bete zuten sailen kopurua.



4. grafikoa. Ebazteko batez besteko epearen bilakaera

6.5. Adierazle orokorrak


6.5.1. Eskeretan erabilitako hizkuntza



5. grafikoa. Informazio publikoa eskatzeko erabili den hizkuntza, aurreko urtearekin alderatuta




6.5.2. Eskatzaileen sexua



6. grafikoa. Informazio publikoa eskatu duten pertsonen profila, aurreko urtearekin alderatuta

6.5.3. Eskaerak egiteko bideak


Pertsona fisikoek osatzen dute 2025ean jasotako informazio publikoko eskaeren % 78. Erregistro bulegoak ere erabil ditzakete informazio publikoa eskuratzeko eskubidearekin lotutako izapide guztietan; hala ere, pertsona fisikoen % 97k bitarteko elektronikoa erabiltzea erabaki du.



7. grafikoa. Informazio publikoaren eskaerak egiteko bideak, aurreko urtearekin alderatuta



6.5.4. Erabilitako izapide elektronikoa mota




8. grafikoa. Erabilitako izapide elektronikoa mota, aurreko urtearekin alderatuta

Egoitza elektronikoa berariazko izapide bat du informazio publikoa eskuratzeko eskaerarako. Eskatzaileek (pertsone fisikoek zein juridikoek) berariazko izapidea nahiz foru erregistro elektronikoa komuna nahiz Estatuko Administrazio Orokorrarena erabiltzen dute. Berariazko izapidea erabiltzen ez denean, eskaerak denbora gehiago behar du unitate kudeatzailean iristeko, bere sarrera erregistratzen denetik.

6.5.5. Eskaerak bideratzea

Foru Aldundiak informazio publikoko eskaerak jasotzen ditu beste administrazio batzuetatik, hala nola Eusko Jaurlaritzatik. Eta eskatutako informazioa ez duenean, erantzuteko eskumena duten erakundeetara bideratzen ditu.



9. grafikoa. Bideratutako eskaerei buruzko datuak, aurreko urtearekin alderatuta

7. Gardentasunaren Foru Kontseiluari egindako erreklamazioak

Gardentasunaren Foru Kontseiluak informazio publikoa eskuratzeko eskaerei buruzko erreklamazioak ebazten ditu. Organo horrek memoria bat argitaratzeko asmoa du, 2025ean izan duen jardueraren berri emateko.

8. Open Data

["Open Data"](#) Araba Irekiaren gunea da, non informazio publikoaren katalogoa formatu irekian aurkezten den. Katalogo hori CKAN bidez kudeatzen da, hau da, datu irekiak argitaratzeko software librearen plataformaren bidez.

Datu horiek eskuragarri daude herritarrek, enpresek eta informazioaren profesionalak baliabide publikoak erraz eta doan aurkitu, deskargatu eta berrerabili ahal izateko. Sistema horri esker, Araba Irekiaren datu irekien atariak informazio elkarreragilea eta eskuragarria eskaintzen du.

2025ean, foru aldundiak 2020tik 2025era bitartean emandako dirulaguntzei buruzko datu guztiak gehitu dira. Foru erakundeetako kargu publikoen eta arduradunen urteko ordainsarien bilakaera ere argitaratu da. Gaur egun, 36 datu multzo daude argitaratuta.

Hauek dira Araba Irekian gehien kontsultatu diren datu multzoak:

1. lanpostuen zerrenda;
2. dirulaguntzak;
3. kargu publikoen eta behin-behineko langileen ordainsariak (2023-2027 legegintzaldia);
4. kargu publikoen eta behin-behineko langileen ordainsariak (2019-2023 legegintzaldia);



5. biztanleko zorpetzea;
6. errepideen egoera;
7. alokatutako higiezinak;
8. ondasun higiezinak.